# KONTRATAZIO MAHAIAREN AKTA: BALORAZIO TXOSTENAREN ONARPENA.

| | |
|---|---|
| **Espedientea:** | Espediente zk.a.: 2024KOHS0002<br>Kontratazioaren xedea: Bergarako Udalerrian garrantzi berezia duten eremuetan biodibertsitatea zaindu eta areagotzeko ekimenak sustatzeko eta lurzoru emankorrak zaindu eta babesteko eta horien erabilera elikagaien ekoizpenera bideratzeko lursailen erosketa. |
| **Eguna:** | 2024/06/06 |
| **Ordua:** | 11:30 |
| **Bertaratuak:** | Presidentea:<br><br>Ainhoa Lete Zabaleta, Bergarako Udaleko Alkatearen ordez<br><br>Bokalak:<br><br>Kontxi Ugalde Izeta, Bergarako Udaleko Idazkaria<br>Ainhoa Larrañaga Berriozabal, Bergarako Udaleko Kontu-hartzailearen ordez<br><br>Idazkaria:<br><br>Aritz Oteiza Lasagabaster, Bergarako udaleko Kontratazio Teknikaria |
| **Balorazio txostenaren onarpena** | Ingurumen teknikariak A gutun-azaleko dokumentazioa aztertu du. Bertan sarturiko agiri administratiboak zein lursailen deskribapenari dagozkionak aztertzeaz gain, lursailak ikuskatu ditu, lizitatzaileek dokumentazioan aurkeztutakoarekin bateragarriak diren edo ez ikusteko.<br><br>Txosten honen aurrekarietan aipatu bezala, Bergarako Udalak bi erosketa-lerro ezberdin aurreikusi ditu:<br>- 1.lerroa: Biodibertsitatea zaindu eta areagotzeko ekimenak sustatzeko lursailen erosketa.<br>- 2.lerroa: Lurzoru emankorrak zaindu eta babesteko eta hauen erabilera elikagaien ekoizpenera bideratzeko lursailen erosketa.<br><br>Lehen erosketa lerroan guztira **34 lursailen** eskaintza jaso dira, baina bigarrenean, ostera, ez da eskaintzarik jaso. Hortaz, kontratazio mahaiak aho batez erabaki du **bigarren lerroa hutsik aitortzea**.<br><br>Baldintza Administratiboen Agiriko 9.6 artikuluari jarraiki, *Bergarako Udalak aurkeztutako edozein eskaintza baztertu ahal izango du, ingurumeneko teknikariak txostena egin ondoren, eskainitako lursailak ez duelako agiri honen xedean eskatzen den egokitasuna.* Ildo horretan, lursailen egokitasuna baloratu du ingurumen teknikariak eta ondorioztatutakoak honako hauek dira: |

Bergarako Udala

*“Lur erosketa deialdira aurkeztutako eskaintza guztiak aztertuta eta lur erosketa deialdiaren xedea aintzat hartuz, eskaintza hauek Bergarako Udalaren* ***xedearekin bat*** *egiten dutela irizten da:*

| LIZITATZAILEAREN IZENA | LUR SAILAREN IZENA | KATASTRO ERREF. |
|---|---|---|
| MJAG | Larragoiti / Loidi | 15-039 |
| INA | Pagola Aurrea | 15-063 eta 15-481 |
| MVGI | Aisti | 13-275 |
| MJAG | Equieder-goiena | 15-037 |
| RMGM | Otzaitz | 12-104 |
| MJAG | Larragoiti / Loidi | 15-038 |
| FJZU | Sakona | 13-078 |
| AAL | Basobaltz | 11-145 |
| Maderas Gallastegui S.A. | Gaspar-Icastegui | 11-109 |
| MTLA | Zigarraokua | 11-082 |
| FJZU | Bide Gain | 14-077 |
| AAE | Bidegain | 14-129.1 |
| AAE | Bizkardo | 14-121.1 |
| SEE | Azkona-zulo | 17-089 eta 17-090 |
| SEE | Erdiko Basoa | 17-076 |
| SEE | Elosako-saila | 15-087 |
| MAL | Liñapozueta / etxage aldea | 12-161 |
| MCLM | Echinetegui | 05-058 |
| AAL | Goiko-Korta | 10-020 |
| JLSZ | Iruerreka amar-aitzeta | 04-181 |
| SEE | Corteta | 17-484 |
| SEE | Illarondo edo Lubarri | 17-052 |
| AAL | Bolubizarreta | 10-168 |
| AAL | Marcelegui | 10-019 |
| MBZ | Iturrazpi eta Gastayartu | 05-206 |

| LIZITATZAILEAREN IZENA | LUR SAILAREN IZENA | KATASTRO ERREF. |
|---|---|---|
| *AEGA* | *Imerrecaco-zacona edo Iturricho* | *04-178* |
| *SEE* | *Larreko-Zabala* | *17-081* |

*Eta lizitatzaile bakoitzak III eranskinean aurkeztutako datuei erreparatuz eta lur sail bakoitzera egindako bisitetan jasotako informazioa aintzat hartuz, honako eskaintza hauek ez dira deialdiaren xedearekiko egokitzat jo:*

| LIZITATZAILEAREN IZENA | ESKAINITAKO LUR SAILAREN IZENA | KATASTRO ERREF. | DEIALDIAREN XEDEAREKIN EGOKITZAT EZ JOTZEAREN ARRAZOIA |
|---|---|---|---|
| *AAE* | *Turbinaburu* | *13-133.7* | *Eskaintza aintzat hartzeko aurretik segregazioa formalizatu behar da.* |
| *SEE* | *Berriondo* | *17-053* | *Eskainitako lurraren kokapena ez da Udalaren interesekoa, ez dago lehentasunezko eremuan. Esku-hartze handia eskatzen duen lursaila da, eta lursailaren kokapen eta konfigurazioak/formak (malkartsua, irregularra…) esku-hartze edo gestioan zailtasunak sortzen ditu. Zailtasun horren ildora, kontuan izan behar da lursailaren azalera handia dela.* |
| *MEGM* | *Sootxoa* | *03-056 eta 03-057* | *Eskainitako lurraren kokapena ez da Udalaren interesekoa, ez dago lehentasunezko eremuan. Esku-hartze handia eskatzen duen lursaila da, eta lursailaren kokapen eta konfigurazioak (malkartsua, espezie inbaditzaile ugari, goi tentsioko kableen presentzia…) esku-hartze edo kudeaketan zailtasunak sortzen ditu. Errepidez eta bestelako eraikin industrialez inguratuta dago eta hala, ez du balio ekologiko handirik.* |
| *MCLM* | *Munabe* | *05-059* | *Eskainitako lurraren kokapena ez da Udalaren interesekoa, ez dago lehentasunezko eremuan. Azalera txikiko lur saila da eta bertatik goi tentsioko kableak igarotzen dira eta horrek esku-hartze edo kudeaketan zailtasunak sortzen ditu.* |
| *MCLM* | *Lizarza* | *05-063* | *Eskainitako lurraren kokapena ez da Udalaren interesekoa, ez dago lehentasunezko eremuan. Azalera oso txikiko lur saila da.* |

| LIZITATZAILEAREN IZENA | ESKAINITAKO LUR SAILAREN | KATASTRO ERREF. | DEIALDIAREN XEDEAREKIN EGOKITZAT EZ JOTZEAREN ARRAZOIA |
|---|---|---|---|
| *AAL* | *Sorgin Zelai* | *10-018* | *Eskainitako lurraren kokapena ez da Udalaren interesekoa, ez dago lehentasunezko eremuan. Azalera oso txikiko lur saila da.* |
| *MLB* | *Terreno Castañal* | | *Lursailaren egokitasuna ezin izan da baloratu informazio katastral faltagatik.* |

Horiek horrela izanda, Kontratazio Mahaiak aho batez **erabaki du aipatu lizitatzaileak deialditik kanpo uztea eta erabakiaren berri ematea** deialditik kanpo utzi direnei.

Gainontzeko lizitatzaileei dagokienean, eskaintza argitze aldera, honako **zuzenketa eskaera** batzuk egitea eskatu du ingurumen teknikariak:

| LIZITATZAILEAREN IZENA | ESKAINITAKO LUR SAILAREN IZENA | KATASTRO ERREF. | ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA EDO HONEN ZUZENKETA |
|---|---|---|---|
| *AAE* | *Bidegain* | *14-129.1* | *Eskainitako lursailari dagokion ohar soila*<br>*Mozketa-txanda dagoen eta ea lur saila landaketarekin edo gabe saltzea proposatzen den adieraztea.* |
| | *Bizkardo* | *14-121.1* | *Eskainitako lursailari dagokion ohar soila*<br>*Mozketa-txanda dagoen eta ea lur saila landaketarekin edo gabe saltzea proposatzen den adieraztea.* |
| *RMGM* | *Otzaitz* | *12-104* | *Mozketa-txanda dagoen eta ea lur saila landaketarekin edo gabe saltzea proposatzen den adieraztea.* |
| *FJZU* | *Sakona* | *13-078* | *Mozketa-txanda dagoen eta ea lur saila landaketarekin edo gabe saltzea proposatzen den adieraztea.* |
| | *Bide Gain* | *14-077* | *Mozketa-txanda dagoen eta ea lur saila landaketarekin edo gabe saltzea proposatzen den adieraztea.* |
| *Maderas Gallastegui S.A.* | *Gaspar-Icastegui* | *11-109* | *Mozketa-txanda dagoen eta ea lur saila landaketarekin edo gabe saltzea proposatzen den adieraztea.* |

| LIZITATZAILEAREN IZENA | ESKAINITAKO LUR | KATASTRO ERREF. | ESKATZEN DEN DOKUMENTAZIOA EDO HONEN ZUZENKETA |
|---|---|---|---|
| *SEE* | *Erdiko Basoa* | *17-076* | *Mozketa-txanda dagoen eta ea lur saila landaketarekin edo gabe saltzea proposatzen den adieraztea.* |
| *SEE* | *Elosako-saila* | *15-087* | *Eskaintzen den lur sailaren ohar soila* |
| | *Corteta* | *17-484* | *Mozketa-txanda dagoen eta ea lur saila landaketarekin edo gabe saltzea proposatzen den adieraztea.* |
| *SEE* | *Illarondo edo Lubarri* | *17-052* | *Mozketa-txanda dagoen eta ea lur saila landaketarekin edo gabe saltzea proposatzen den adieraztea.* |
| *MCLM* | *Echinetegui* | *05-058* | *Mozketa-txanda dagoen eta ea lur saila landaketarekin edo gabe saltzea proposatzen den adieraztea.* |
| *MBZ* | *Iturrazpi eta Gastayartu* | *05-206* | *Mozketa-txanda dagoen eta ea lur saila landaketarekin edo gabe saltzea proposatzen den adieraztea.* |
| *MLBZ* | *Terreno castañal* | | *Lur sailaren inguruko informazio katastrala aurkeztea.* |

Ingurumen teknikariak egindako proposamenari jarraiki, aipatu lizitatzaileei goian aipatutakoak zuzentzeko edo argitzeko errekerimendua egitea erabaki du Kontratazio Mahaiak, dagokion **zuzenketa egiteko 10 egun balioduneko epea** emanda erabaki honen jakinarazpena jasotzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Halaber, ohartarazten da landaketa duten lurren kasuan ez balitz errekerimenduari erantzungo, Udalak ulertuko duela lursaila dagoenetan saltzen zaiola Udalari.

Hamabiak direnean, lehendakariak amaitutzat eman du irekitze-ekitaldia, eta nik, idazkari lanetan egon naizen honek, hori ziurtatzen dut.

Sinatuta: **PRESIDENTEA** Sinatuta: **IDAZKARIA**